



BULEGOKO ALTZARIAK – Maila Aurreratua

Prozedura ireki bidez eta lehiaketagatiko esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

1.1. Kontratuaren xedea

1. Koadroa

Lehiaketa honen helburua bulegoko altzariak eta ekipamendua eskuratzea da.

Lan segurtasuna eta osasuna zaintzeko eta ingurumenarekiko kaltea txikitzeko, altzariak gutxienezko irizpideak bermatu beharko dituzte ergonomiari, erosotasunari, segurtasunari eta ingurumen kalitateari dagokionez. Horrez gain, hornikuntza zerbitzuak ingurumena errespetatu beharko du.

1.2. Hautaketa irizpideak: kaudimen teknikoa eta profesionala

Altzariak instalatzeko lanak behar bezala egiteko, eta lan horretan sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko, ezinbestekoa da enpresak, gutxienez, kalitatezko kudeaketa-sistema eta ingurumen-arloan trebatutako langileak izatea. Hori gaitasun profesionalaren bitartez eskatu beharko da:

2. Koadroa

- Enpresak ezarrita eta ziurtatuta izan beharko du kalitatea kudeatzeko ISO 9001 sistema edo baliokidea.
- Horretaz gain, kontratua gauzatzeko ingurumena kudeatzeko jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzen direla bermatu beharko du, altzariak instalatzeko egiaztaturiko ingurumena kudeatzeko sistema baten bitartez (esaterako, EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo baliokidea); edo
- Laneko osasuna eta ingurumenaren zaintza babesteko lan-prozedurak eta lan-arauak izan beharko ditu.

Lehenengo eta bigarren kasuan, enpresak ingurumena eta kalitatea kudeatzeko

sistemen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Hirugarrenean, berriz, lizitatuak B gutun-azalean sartuta aurkeztuko ditu bere gaitasuna balioesteko aipatutako prozedurak.

1.3. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

1.3.1. Zerbitzuaren ingurumen irizpideak

3. Koadroa

- Eskaintzaileak horniketan ekoiztako bilgarriak behar bezala kudeatu beharko ditu eta altzariak jartzerakoan ere kudeaketa egokia egin beharko du. Eskaintzan berariaz adierazi beharko da zer nolako kudeaketa egingo den eta gutxienez bilgarrien gaikako bilketa bermatu beharko da.
- Bestalde, aintzat hartuko da lizitatuak altzariak itzultzeko sistema izatea (take-back) hondakin bilakatu ondoren behar bezala kudea daitezen hondakinen kudeatzaile baimenduen bitartez, baita lizitatuak proposatzen dituen beste neurri batzuk ere, betiere behar bezala justifikatzen badira. (Erakundeak altzari zaharrak bota nahi baditu, aukera hori eska liteke).

1.3.2. Eskaintako amaierako produktuen irizpide orokorrak.

4. Koadroa

Iraungarritasuna¹

- Produktuak hiru urteko bermea izan behar du gutxienez.

Aintzat hartuko da bermearen iraupen handiago bat eta ordezeko piezak eskuratu ahal izatea gehienez 5 urtez.

Mantentzea

- Produktuak disolbatzaile organikodun produkturik erabili gabe garbitu ahal izango dira. Horregatik, produktuen garbiketa eta mantenimenduaren inguruko informazioa eman behar da.

Birziklatzea eta berrerabiltzea:

¹ Iraunkortasuneko irizpide teknikoei buruz erlazioa aurki daiteke altzari-kapitulu honetako 3 eranskinen, hauek dagokien ataletan txertatu behar izango dira.

- Produktua birziklagarria edo berriz erabiltzeko modukoa izango da. Horretarako, produktua osatzen duten materialak erraz bereizteko modukoak izan beharko dute, behar bezala birziklatu ahal izateko.

Ekodiseinua

Aintzat hartuko da eskainitako produktuak ingurumenaren alderditik hobetu izana, bai ekodiseinuaren bitartez, bai bizi-zikloaren ikuspegitik, edo bietatik, egiazko informazio zientifikoaren bitartez. Horretarako, dagokion dokumentuak aurkeztu beharko dira eta esanbidez egingo zaio erreferentzia produktu bakoitzari. Dokumentu horien artean honako hauek egon ahalko dira:

- Ekodiseinatutako produktua agertzen den ISO 14006 ziurtagiriaren eranskina, eta produktuari aplikaturiko neurriak eta lortutako hobekuntzak biltzen dituen txostena.
- Produktua ingurumenaren aldetik hobetzeko, UNE-EN-ISO 14040 eta 14044 ziurtagirietan edo baliokidean (esaterako produktuaren ingurumen-adierazpen bat) ezarritakoaren arabera, Bizi Zikloaren Azterketa aplikatu dela dioen fabrikatzailearen txostena, aplikaturiko neurriak eta lortutako hobekuntzak adierazita.
- Produktuak I. motako ekoetiketaren baten (Europar Batasunaren Etiketa Ekologikoa, Beltxarga Zuria, Aingeru Urdina edo baliokidea) ingurumen-irizpideak betetzen dituela erakusten duen txosten teknikoa, edo ekoetiketaren beraren ziurtagiria.

Bilgarriak

- Bilgarriak material birziklagarritz eginak egon behar dute (papera/kartoaia, polietilenoa, polipropilenoa, polistirenoa). Bilgarriak material bat baino gehiago izan dezake, baldin eta eskuz eta erraz material bakarraren zatietan bereiztu badaiteke.

Aintzat hartuko da plastiko ezberdinak behar bezala identifikatuta egotea ISO 11469 arauaren edo baliokidearen arabera.

Aintzat hartuko da bilgarri plastikoak ez halogenatuak izatea.

Aintzat hartuko da bilgarrietan erabilitako material birziklatuaren % edo sistema berrerabilgarriak erabiltzea.

1.3.3. Produktuak osatzen dituzten materialentzako irizpide espezifikoak

5. Koadroa

Partikula eta zuntz oholak

- Erabilitako zuretako partikulen eta zuntzen jatorria erakusten duen dokumentazioa aurkeztu behar da derrigorrez (espezieak eta jatorria). CITES (Convention International Trade of Endangered Species) konbentzioan jasotako espezie mehatxatuak erabiltzea debekatua egongo da.

Aintzat hartuko da zuntzen % edo modu iraunkorrean (FSC, PEFC edo baliokidea) kudeaturiko ustiatzietako ziurtaturiko zurezko partikulen % eta/edo birziklatuak.

- Giza osasunarentzako dakartzan kalteengatik, erabiltzen diren tauletan formaldehidoen isuriak mugatuak egongo dira. Gutxienez E2 motako taulak erabili beharko dira EN 13.986:2002 arauaren edo baliokidearen arabera.

Aintzat hartuko da taulak E1 motakoak izatea (EN 13.986:2002 edo baliokidearen arabera).

Aintzat hartuko da fabrikazioan ez daitezela erabili 67/548/EEC zuzentarauak kartzinogeno, ugalketa sistemarentzat kaltegarri, mutageniko, toxiko edo alergeniko (arnasten direnean) gisa sailkatutako substantziak.

Material metalikoak

Aintzat hartuko da aluminioaren edo birziklatutako altzairuaren (bigarren fusiokoa) % aluminiozko eta/edo altzairuzko elementuen produkzioan.

Material plastikoak

- 50 gr baino gehiago pisatzen duten plastikozko zati guztiak ISO 11469 edo baliokideren baten arabera markatuko dira eta ezin izango dute birziklatzeko zailtasunak sortzen dituzten estaldurarik izan.

Aintzat hartuko da fabrikazioan beruna, kadmioa edo merkurioa, haien eratorriak eta ftalaloak dituzten substantziak ez erabiltzea.

Aintzat hartuko da altzarrietan plastiko kloratuak ez erabiltzea.

Aintzat hartuko da jatorri plastikoa duten piezek duten plastiko birziklatuzko % eta jatorri biodegradagarria dutenen %.

Tapizeria

Aintzat hartuko da Öko-text, Europako Etiketa Ekologikoa, Beltxarga Zuria edo ziurtagiri baliokideren batean ezarritako produktu kimikoen eta isurketen betekizunak betetzea.

Betelanerako materialak (apar-goma, latexa...)

Aintzat hartuko da Europur, Europako Etiketa Ekologikoa (koltxoientzako) edo ziurtagiri baliokideren batean ezarritako produktu kimikoen eta isurketen betekizunak betetzea.

Gainazalarentzako tratamenduak (pintura, bernizak eta lakadurak)

Pisuan % 1etik gorakoak diren kantitateetako azaleko tratamenduentzat aintzat hartuko da disolbatzaile aromatikoa ez erabiltzea eta KOHak (konposatu organiko hegazkorak) ez erabiltzea.

Horrez gain, aintzat hartuko da azaleko tratamendurako eragileak ez egotea 199/45/CE zuzentarauaren arabera kartzinogeno, ugalketa sistemarentzat kaltegarri, mutageniko, toxiko edo alergeniko (arnasten direnean) gisa sailkatuak.

Aintzat hartuko da korten altzairuzko, altzairu herdoilgaitzezko, aluminiozko eta titaniozko gainazal metalikoak ez margotzea.

2. Esleipen-irizpideak

Esleitzeko irizpideetan zehatz-mehatz dago eman beharra elementu baloragarri bakoitzari emango zaion ponderazioa. Adibidez:

6. Koadroa

Produktuen alderdi teknikoak eta ingurumenekoak, % 20 arte

Espezifikazio baloragarriak eskainitako produktu bakoitzarentzat puntuatuko direnez, irizpide tekniko eta ingurumenekoentzat guztizko puntu kopurua altzariak osatzen dituzten pieza guztiek jasotako puntuen batez bestekoa izango da.

Materialen hobekuntzei dagokienez, produktu bakoitzaren osaeraren baitan egongo denez, puntuak ekitatiboki banatuko dira produktua fabrikatzeko erabilitako materialen irizpideen artean.

- Produktuaren materialen ingurumen hobekuntzak, **% 10 arte**:

Taulak

- Basoen kudeaketa iraunkorren zuntzen eta/edo zuntz birziklatuen %.
- P1 motako taulak.
- Substantzia arriskutsurik gabe fabrikatzea.

Material metalikoak

- Aluminio eta/edo birziklaturiko altzairuaren %.

Plastikozko materialak

- Metal astunak edo ftalaloak ez erabiltzea plastikoetan.
- Plastiko kloratu gabeko plastikoak.
- Plastiko birziklatu eta/edo biodegradagarriaren %.

Tapizeriak eta betelanerako materiala

- Tapizerien ingurumen hobekuntza.
- Apar-gomaren ingurumen hobekuntza.

Gainazalarentzako tratamenduak (pinturak, bernizak eta lakadurak)

- Disolbatzaile aromatikorik gabe eta KOHrik gabe.
 - Substantzia arriskutsurik gabe.
 - Gainazaleko tratamendurik gabeko korten altzairua, altzairu herdoilgaitza, aluminioa eta titanioa.
- Produktuaren ingurumen hobekuntza orokorrak, **% 6 arte**:
- Berme epe zabalagoa 3 urtetik __ urtera (gutxienez 5) [3 arte]
 - Produktuaren ekodiseinua eta Bizi Zikloaren Azterketa [3]
- Produktuaren ontzietan eta bilgarrietan hobekuntzak, **% 4 arte**:
- Bilgarrian birziklaturiko materialaren % (frakzioaren arabera definitu: papera/kartoia, plastikoa...) edo bilgarri itzulgarria erabiltzea [2 arte]
 - ISO edo baliokidearen arabera markaturiko bilgarriak [1]
 - PVC moduko plastiko halogenaturik gabeko bilgarriak [1]
- Zerbitzuaren ingurumenarekiko jarreraren hobekuntzak, **% 5 arte**:
- Itzulketa sistemaren eskuragarritasuna (take-back) [3]
 - Lizitatzailleak proposatutako zerbitzuaren beste ingurumen hobekuntza batzuk, betiere behar bezala justifikatuta [2 arte]

3. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurkezpena

Aurkeztutako eskaintzak eta dokumentuak ebaluatzeko lana erraztearren, pleguan bertan zehaztuko da dokumentazioa nola aurkeztu. Informazio hori lehiaketa deitzean emango da, lizitatuzaileek behar beste denborarekin jakin dezaten.

7. Koadroa

Eskaintzen ebaluaziorako honako dokumentazio hau aurkeztu behar da, betiere jarraian zehaztu bezala:

- a) **Eskaintako produktu bakoitzarentzat baldintza espezifikoen fitxa** (1. eranskina)² behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Fitxa horietako bakoitzari grapaturik, lizitatuzaileak adierazitako espezifikazioak (bai derrigorrezkoak, bai baloragarriak) betetzen direla **frogatzen duen dokumentazio guztia eta eskaintako ereduaren dokumentazio grafikoa** aurkeztuko du.
- b) **Zerbitzua emateko baldintzen fitxa** (2. eranskina)², behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Eskaintzaileak hitzemandako espezifikazio baloragarrien eta eskaintzaileak balora daitezen proposatutako hornikuntza zerbitzuko beste ingurumen espezifikazioen **ziurtagiriak** fitxa honetara grapatuta erantsiko dira.

Baldintza-agirian ezarritako estandarrak eta bestelako egiaztagiri batzuk baliokideak direla frogatzea eskaintzaileari dagokio; horretarako, baliokidetza hori erakusten duten azterlan teknikoak aurkeztu beharko ditu.

² Kapitulu honen "Hornitzaileentzako egiaztapen-zerrenda" atalaren lehenengo txostena ikusi (<http://www.ihobe.eus>, Jarduera-eremuak>Erosketa Publiko Berdea.)